GARILLA
1
Eguaztena
Bilbao, 1936

Euzkadi

ARPIDE-SANEURIJA
Bilbao'kua ... ... 9,00 ifko. iru
Bilbao'atazkua ... 11,25 "
Idazki-itunmena ... 62,90 " ur
Atzerijetakuak ... 112,50 "
Beldayen itunduba

XXIV urtia | Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17,1.° | 234 Idazkutxa | 17.810 Urrutizkiña | 7.336 zenbak

Gayak

¿SOMOROSTO'RA?

Ila onen 12'garenerako iragarita dagon txangorako gar aundija nabaitzen da baztarretan.

Ondiño 12 egun euretik dagozan aren, txango oretara utsik barik juateko ongoxe dabiltz gertakixunak egiten.

Abando'ko Batzokija'k belbil nausi bat gertau dauala diño, ta juan-etorija 3.50 laurleko ixango dala.

Deusto'ko Batzokijak be, beste belbil aundi bat iragarten dau. Belbil onetan 50 notiñentzat lekuba ixango da. Eta onen juan-etorfiko txartela be 3,50 laurleko baño ezta ixango.

Galdames'tik be izpar onak damoskubez. Oneik belbil bi gertau dabezela diñue, ta goiz ta aratsalde belbilok urtengo dirala.

Juan-etorfiko saneurija be iragarí dabe: 3 laurleko.

Barakaldo'tik be izpar bardiñak damoskubez. Datoren igande zortzi Somorosto'ra juateko gar aundija dagola diñue, ta egun oretan notiñak-notin Somorosto'ratuko dirala.

Eta azkenez, Sabin-Etxia'tik be, atauriko jayan Somorosto'ra juan-etorija egin gura dabenak, goiz ta aratsalde egin leikiela diñue, juan-etorirako belbilak goiz ta aratsalde ixango dabezala-ta.

Beraz, ila onen 12'garenerako iragarten dan txango onek, egunerik-egunera artzen dauan garantzija ikusita, notintza aundija Somorosto'ratuko dabela esan leike.

Abertzalien artian uartuten dan gar au pozkarija da, bariz, bata biarekua be. Somorosto-aldia ondiño otz-samar aurkitzen da, ba, abertzale-su asko barik. Eta abertzale-bidez begiratuta su gitxijaz ikusten dan euzko-eri ori apurtxu bat berotuko ba-da, berotu, Jel-sutegijan ondo galdatuta dagozan abertzale-bijotzetako gara eurekandutia nai ta nai-ezkua da.

Beraz, ila onen 12'garenian, Somorosto'ra juateko igitu biar gara.

JON DEUNEN TXADONAN

Gaur, egubazten goxeko zortziretan, Basarate'tar Joseba Koldobika zanaren gogo-aldez (G. B.), uri onetako Jon Deunen ertxadonan jaupa bat ixango da. Basarate gastia, Euzko-Gastedi'ko Kiroltzale - Bazkuna'ko mendigoxalia ixan zan. Eta gustijok dakixuben lez, azkenengo Bizkargi'ra egin zan txangotik txiringuts-ganian etxerantz etorala idoro eban erijotzea.

Beraz, kiroltzale erimia ixan zan gaste onen gogo-aldez ixango dan jaupara, mendigoxale gustijei detuten yake.

Eta erdu al diranak ezetariko nagi barik erduko dirala uste dogu, gaur zuri ta bijar niri, lantzian bateri lagun egile au anayen arteko egiñen kistara da ixan be-ta. Eta mendigoxale kistaren egiñena be orixe ixan biar da: bata bestiaren biarixanetara azkar erdutia.

¿IGANDIETAN BE LAN...?

Lan urritasuna daguala... Lan-ordubak gitxitu egin biar dirala... Langile gustijak lana ixan dagijentzat, lan dagijenai lan-egunak gitxitu biar yakezela ta abar esaten dabez.

Esanok gora-bera, baña, izparingijetan guzur ta abar ingoskijak-ingoski idazten gabiltzanoi, igandietan be lan eragin gura ei-doskube.

Auxe bai dala "munduba alrebez" ibiltia. Batzui, lan-ordubak eta lan-egunak gitxituten. Eta beste batzuboi, igandietako atsedena be kendu-egin gura.

Eta gero, izparingiiak ezetarako be eztirala esango dabe. Edo obeto esateko, gixartia burubak galduta iminteko baño eztirala...

Izparingi batzuk, ixan be, buruba berotu, ta oñak otzituteko baño eztira ixaten. Eriketa-auzi gustijen ganetik egija agertubaz gixartiaren onaren argitaltzen diran izparingi gitxi-gitxi dira, ba.

Izparingiiak, bariz, gixartiari bide zuzena erakusteko egiñak ixan biar litzakez; bakotxaren eskubidiak egi-bidez aldeztuten dabezenak.

Baña ez. Izparingirik geyenak, zoritxarez, gixarte ta gixabide gustijen ganetik, eriketa ziztriña agertuko dabe, ta egijaren aurka ta kistar-ikasbidiaren kaltez ixanda be, axe euren eriketa loya aldeztuko dabe.

Oneik olan dirala be, baña, antza dagonez, guri langile gixagaxuoi, igandietan be lan-eragingo dauskube. Au, bariz, kistar-ikasbidiaren aurka daguana da. Eta ¿zer egin ¿Autorkuntza bakotxian oben bardiñaz autortegiratu?

Olango obenakaz autortegiratuterik ezkenduke gura, bariz.

Gutzaz Goikua erukituko al da.

Ibon

LAZKANO

BEASAIN'GO BATZOKIJA'REN AZKUNDEAN.—Geure Aberi Euzkadi'renganako maitasunak eraginda, ainbat neke eruapen aundiarekin egin ostean, beasaindar abertzale neke jaso beria duten Batzoki ederaren azkundea, il onen 19'an ospatuko dala diote.

Beragatik, egun oretarako, euzko jai ederak eraltzeko asmo biziaz lanean asiak ditugu beasaindar abertkide asperen eziñak.

Geure auzo-eritar abertkideak, Euzkadi'ren aldez egiten ari diran lan onurakorarekin, abertzale guzien eskerona ongi irabazirik daukate, eta eskerona ori iñola al-ba'degu agertu bear diegu beasaindar abertkide anayari, il onen 19'an, euren Batzoki ederaren azkunde egunaren ziogatik ospatuko dituzten jai-abertkoietara urbilduaz den-denok, gizon bat bakarik lez.

Anaitasunezko egintza au neke aundikoa eztanez, egin gabe gelditzea al dala, gizon ugerak izatea litzake.

Beraz il onen 19'an guziok Beasain'era, Aberiari egun eder bat eskeñiaz batera, beasaindar abertzaleari Aberi aldezko euren lan txalogaria eskertzera.

JAYOTZAK. — Galparsoro'tar Joseba Mikel'en emazteak nexka bat izan du, ezkontzako lenengo lorea.

—Gure eritara dan Bitoria'tar Eugeni sendagile jaunaren emazteak ere aur bat izan du Tolosa'n, eurak bizi diran erian.

Zorionak bi guraso aldeari.

BARAKALDO'RA.—Bizkai'ko eri langile ontara juan dira Estala'tar Sabin eta Garmendia'tar Jon Joseba apaiz gizintzoak.

Ondo ibili lagunak, eta gorantziak zeuen osaba izebari.—J.

Jolasai yagokozan euzkel - izenak

Azkue'n iztegitik

II

BAPANAZKA (Bn., L.).—Jugar uno a uno.
BEGO (B.-m.). — Fórmula con que un jugador pide a su compañero la pelota durante el peloteo. (Utzi! Neri!)
BESABEZ (Gc.).—Arrojar una piedra a sobaquillo.
BESABURU (G.and.). — Volea a la pelota.
BESAGAIN (N.-Arag., G., L., S.). Arrojar piedras no a sobaquillo, a la vuelta. Dar voleas. Jugar a la barra a pecho.
BESAIN (An.-b., Bn., L.). — Volea.
BESAINKA (An.-b., Bn., L.).—A volea, a brazo partido.
BESATAKA (R.-uzt.). — Luchar a derribarse
BESALEGEAN (S.-gar.). — Lucha que consiste en derribarse.
BESAZPI (An.-b.).—A sobaquillo.
BESAZPIZ (Bn.-ald., L.-ain.). — A sobaquillo.
BESOGAIN (An.-lez., Bn., S.).—Volea, movimiento del brazo por encima del hombro.
BESAPE (B.-ond., Bn.-s., R.). — A sobaquillo.
BESAPEZ (Sc.).—A sobaquillo.
BESAZEAR (B., G.) — Jugar a la pelota cortándola o rasándola.
BESOPE (Bn., Sal.).—A sobaquillo. movimiento del brazo por debajo del hombro.
BIA (B., G.).—El dos en el juego de naipes.
BIETAN (B., C.). — Grito con que un jugador de pelota incita a a otro a que guarde bien el puesto de las dos paredes.
BIKO (B., Bn., G., L., S.).—El dos en el juego de naipes.
BIRAZKA (An.b., Bn., L., S.).—Jugar dos a dos.
BIRLARI (B.).—Jugador de bolos.
BIRLAU (B-a-o-tx-ub). — Echar un bolo con otro bolo y no con la bola.

(Jarraitzeko.)

VII'garren Euzko - Olerti - Eguna

Azkue'tar aita-semiari egindau gorasarria. Olerki saritubak

Lekeitio'ko erijak daukon eskudua: ... "terra marique potens Lequeitio". Alantxe ixan, be, da. Itxas-ertze aretan berein seme ospatsu jayo dira. Itxastar entzutetsubak. Balbuena'tar Bernarta olerkarijak iñuan: "Lequeitio, en marineros abundante."

Baña itxastarak ez-eze lioftar jakintsubak emon dauz. Gracia Crial'ak egindako ertxadon zoragari aren babespian azi ixan dira. Orein tarteko bi, Azkue'tarak. Berezkua zan, ba, gixon argi orei gorasare egitia. Oso-osuan ezkagoz Azkue'tarakin, baña Euzkadi ta euzkeraren aldez lan andijak egin dabezala, ezin ukatu.

Asmo oregaz larunbata-gabaz bildu gintzan. "Euskaltzaleak" ziran jai onein asmalari. "Gora-Buru" antzokijan, Azkue'tar Eusebi zanaren irudi bat aurian gebala eta Azkue'tar Berpizkunde Mirena geurekin geunkala, jayoi asijerea emon geutsoen.

"Endaitz"en itzak. Olerkari gorengo onek opalbena egin eban. Urkiaga'tar Estepan'ak, Azkue'tar Eusebi Mirena olerkaritzat aukeratu eban. Altzo Abak aztertu eban Azkue'semiaren lana; azkenez Labayen'ek arakatu ebazan Azkue'ren antzerkijak-eta. "Aitzol" jaunak matekiro ta ederto opaldu eutsoen jai a.

¡Begiko gauza! Oraingo gastedijak goraldu daroez antziñako gixonak. Euzkerea goruntz doian orduban, len-aldijetako lankidietzaz ezkara aiztuten.

Euzkaltzaindi osua, gixon azkarak, olerkari bikañak, abertzale zintzuak... Gustijetarikuak ara juan ziran. Abeslari-talde batek, be, zoragarijan ekin eutson bere arluari.

Igandia, 2'garena! Goxeko eguzkijaren edera! Txistu-otsak, bolanderak. Miren Deuna'ren ertxadon edereran meza nagusija. Eri osua bildu zan eta abeslarijak azkar ekin eutsen.

Antziñako aldi zoragarijetan ixaten zan legez orain, be, txistularijak aurez-aure zirala, udaletxeko gixonak, abadeak, olerkari, jakintsu ta beste gustijak. Udaletxeko areto nagusijan. ¡Zenbat gixon-emakume! Txalo-ots Azkue agertzian.

¡Barerako be! Azaña'ren irudi-pian, Azkue jaun andija. Gero "Aitzol" azkarak itz bi egin euzan. "Euskaltzaleak" zer nai daben, Olerti-Egun onein bitartez nora duazan. Neuri-neurijan gustija.

¿Nor ete dok olerkari sarituba? Begi gustija txut eta zur. Ene arako mutil gastia ei-da! Apaizgaya edo... Eta Ariztimuño'ren abotik: Otamendi'tar Iñaki'k Zidarezko Abara jaritsi dau. ¡Ango txalo otsa! Iñoiz eztogu entzun alako abarotsik! Beste Olerti-Egunetan ez beintzat.

Mutil apal-apal bat: lotsaz aurera dua. Azkue jaun andijak Abara emoten dautso. ¡Olerkari bikaña az! "Giza-adiñak" lako olerkarijak egiten dauzanari, askotxu eskatu biar yako!

Ondoren ohorezko sari-bila: Sukia'tar Gotzon. Gaste alaya, begi-argi eta ule-txut! Onegandik, be, igali gozuak itxadoten doguz. ¡Gora olerkari bijok! Gaurtik begi-iñijetan eukiko doguz! Ostikolari edo pelotari gustijak baño mategarijaguak baitira!

Euzko-poemarena Lekuona'tar Imanol'i. Gixon onen ixena toki gustijetan edatuba dabil. Euzko-elertijan nori ezezaguna yako? Olerti-Txortak bildu dabezenen artian lau gaste. Txalo-otsak onei. ("Abeletxe" nun geratu intzan?)

Ondoren Barena'tar Miren Arantzazu. Au dan azkara! Gozotasunez, indarez, gayari dagokijon bidez, saritutako olerkija oguzi euskun. Emakume onen abuan ederago iduritu yakun olerki eder-eder a. Euzkadi'n dogun oguzlerik onena.

Olantxe amatu zan Udaletxekua. Endore be, an zan, bere lotsaz gustijak goraltzen. Eritzan bertsolarijen ekiñaldija. "Basari", "Zepa", "Uztapide" eta "Txapel". Zer dira oneik! Eujua eta alkar zirikatu naya! Amaikatxu bare atso-agurien aboetan!

Ezkontza-gayai ekin eutsoen. Enparantza bitsetan egozan. Otoruntza! Jana egin eta itzak entzutera. Azkue'tar Eusebi Mirena N zan etxian oroigalu bat jari eben. Olantxe letijak jakingo dabe non munduratu zan "Parndea"ren egilia.

Euskaltzaleak" euren lendakaritzat Montzono eben. Gitxik ez bestian mintzatzen daki. Txalu tasuna ixan ziran une aretan, be.

"Mendiburu", Oyartzun'go taldiak "Eun duk tu eban. Beste antzerkitxubak eztauko ezer an dukat" ikusi-ezkeruan. Lekuona'jaunak egin da za begikua benetan.

Erijari atsegin ixan yakon; bata erija ez Olantxe amatu ziran Azkue'tarai egin yakezedijak eta Euzko-Olerti-Eguna. Saspi urte onetarpegi bari, zenbat olerkari! Baña abertzalia aintzakotzat artzen ete-dabez? Zeozer idatzik baña gauza garatzak norberaren kolkuan gordrik eztago...

Olerti-Eguna'k aurera duaz. "Endaitz", Iraizo índia olerkari azkaren olerkijak irakuri-ondoren; Otamendi'rekin itz-eginda; Lekuona'ri txaluak bijotzak gora jaso biar doguz.

Gastetasunak garabiltz! Azkue'tarai benetan na, ordaindu dautsegu. Iztegi bat, Morfologia bi -Eriaren Jakintza, Euzko-Abestijak. eta zenbat lan emon eta egin dauskuzanari, lotsa andija dautsogu.

Erijak eta gixonak noragiñokuak diran gau ikusi daikegu; urkuari egiten dautsen gorasari zabala daukenak, gofotorik eztaukenak, gustija balijo daunari txaluak joten dakijanak, orek p ixango dira.

Iñor goratziaz, geure bururik eztogu maku zera! Euzkereak zor andijak daukotsoz Azkue -erijak, be, bardin. Nun ixango ziran onezkerkanta zar? Nun ipuñak, eri-jakintza gayak?

Lekeitio'ko erijak ixan daun gixonik azkare garijena, Azkue. Zalantza barik. Orain arte, bitxi dogu: Kanpion, Arana-Goiri eta Azkue dira eungiko euzko-semerik azkarenak eta gurenak. bide adirazten dauskubez. ¡A zelako lana egin gixon orein bidiak arakatubaz!

Itxastaren ixenak atzinduko dira; baleak juaten ziranen otsak galdu dira: baña Azkue betiko ixango da. Mundubak ziar dabil.

Orexegatik aratu giñan. Eta ezkara damutuxe! Olerkari barijen begijetan EDER ikusi gebaren begijetan jakintzaren arats gozua! Orain aurtuko dautsogu.

Azkue, Otamendi, Sukia, Lekuona, Erkiaga, Iraizoz, Salaberia, Eremenderia, Ariaga eta Ziarsolotxe dozuz igandeko jayan entzun ziran abixenak. ren matasunak darabiltz eta orexegatik ainbeste egin daroiez.

"...terra marique potens Lequeitio."

Autu-mautuka

APURTUTA!

Calvo Sotelo'k ¿zer ete-diño? Galizi'ko araudi-zaliai zelako zirikadak jaurtiko ete-dautsoez? "España roja" gura ebanak, zelako negarak egingo ete-dauz. Arokeriz beterik eguan aldijetan esan euzanak, gaur egi-biurtzen dirala, ikusi darua.

Galeuzka benetakua oraintxe softuko da. Araudi bat gura ezebenak, iru iruntsiko dabez.

BARIRO ASI GADIXAN

Zereko eriko abade jauna meza emoten asi zan. Introito eta garatikuak esan ebezan eta Goizparkija irakuri biar eban. Mutiko koskorak artu eleizako liburuba eta alde batetik bestera eruan eban.

Gure abadeak, ostera, oindi edo altarari gira emotian, abots zoliz itaundu eban:

—Etxe Zuri'ko Joshe Mari etori ete-da?

—Ez, jauna, oindiño eztira eleizaratu—erantzun eutsoen.

—Beraz bariro asi gadixan.

Eta esan da egin. Lengo lekuban eleiz-liburuba ipiñi ta mezea bariro asi eben. Beste oren beste egingo dabe Euzkadi'n bixi diran eregetarak, be.

—¿Alphonso etori da?

¡Orduban bariro asi gadixan!

TXARIJA IDURI!

Euzko-itxas ertzera España'ko eregiña bat etorter. zan. Lodikotia zan. Itxasuan igeri ebilan bitartian itxastar on bat zaindari eukon. Beste itxas gixon piluak kai-ondotik bagiraka eukozan. Bare egijen.

Eregiñeak bere lepotik bareka egozala igari eban.

—Praisku Peru, ¿zer diñoe gixon oreik?

Gure Praisku Peru'k atz-egin ondoren ezertxu, be, ezeutson erantzun. Itxastaren bariak zirala-ta, asare samar eguan eregiñea.

—Baña ezegistazu zer diñoen!

—Tira, baesango dautzut, baña etzadi asaratu gero!

—Ez, enaz asaratuko.

—¡Cerdo que pareses! — erantzun eutson gure itxastarak.

Eta eregiñeak bare-egin eban. ¡Egi galanta zan-eta!

¡IRALERAKO!

Latari-ixan gura daun bat aztereketara juan da. Mai andi baten dagozanak itaunduten dautse:

—Latari-Batza (Sociedad de las Naciones) ¿zer da?

—Latari-Batza Ginebra'n dago.

—Zerbait geyago. ¿Retarako softuba da edo?

—Latari-Batza, ba...

—¡Aldendu zadi iraña-arte!

Eta ikasliak, amorruz erantzun eutsen:

—¡Iño! Latari-Batza, Ginebra'ko bazkuna dogu, iralerako gustija atzeratuten dauna! ¡Oraintxe gomutetan naz!

ABESLARI ONAK

Ipar Ameriketa'ko ikasle batzuk erriz-eri juan dira. Baltz-piluak bixi diran uri bateko enparantzan abesti - mordotxuba abestu eben. Baltzen abestijak. Abesti areik amatukeran, zuri gustijak ixilik egozan eta baltzak negarez.

—Eskerik asko—eran eutsoen baltzok—. Ondo baño obeto abestu dozubez. Baña egiz iñoiz etzarie baltzak ixan gero...?

(Gazteiz'ko Kardaberaz'ek asitako lanari jarraituaz)

Euskera'ren egoera

"Kardaberaz" aldizkingiak asi zuan lanari guziok, bakoitzak al duan eran, jaraitu bear genioke. Euzkadi'ko erietan batuta ba da euskal-idazlerik. Bakoitzak bere eri ta ingumarietan zer edo zer egingo ba lu... laister genduke osotua Euskera'ren "charta lingüística".

Euskera'ren egoera jakin... ta gorinak jota ba lego, gaitzaren jatoria bilatu, bear diran osagarriak ipintzeko.

Euskera sendatu nai degu. Ortarako gaxorik dagoan jakin bear. Urena beriz, gaitzaren sorkunde ta sustraiak astertu bear... Euskera'ren gaxoaren sustraiak ez dira berdiñak eri guzietan. Mota batekoak dira emen, bestelakoak an. Eri bakoitzak bereak. Nun nolakoak diran jakin bear.

Ora zure egin-bearra, euskal-idazle laguna. Zure eri oretan Euskera nola bizi dan agertu egiguzu. Erakutzi ere, aldanean, Euskera'ren etsaiak...

Euskal-aldizkingi ta egunerokoetan tokia utziko dizutela uste degu.

AKOSTA (ARABA)

Gazteiz'tik amabost kilometrora dago Zigoitia'ko ibar polita. Anboto aldean, Bizkaia'ren muga ondoan. Bastar oletan Bizkai ta Gipuzkoa'ren antza nabaitzen da; ez osoa, ordea. Ez du lurak Araba'ren ego-aldean duan legortasunik; mendiak ezeago agertzen dira an baño. Alaz da guzti ere gori uneak agertzen dituzte ezearen artean.

Gorbea bulartsuaren oñetan etzana dager Zigoitia'ko ibara. Zigoitia'ren biotza Gopegi da. Gazteiz'tik, Murgia'n zear, Bilbao'ra daraman bide nagusia utzita beste bide koskorago bat artzen da Gopegi'rako. Iruren bat kilometroan.

Udaberiko egun alai batean jo nuan Gopegi'ra. Ura erdal-usaia nabari zana edonun! Mendiak, bideak, etxeak, arbolariak... irauntzen dute oraindik euskaldun; baña gizasemeak erdaldunak dira oso-osorik. Arpegiak gorde ezkero, beste gañontzekoak begiratuta, Gaztel-erian giñala esango luke edonork.

Erdera aotan... aspo-soñua ta dantza-lotua jai-aratsaldean... Gaztel eriko erixkaren batean al gera?

⁂

Baña, jai-goizean...

Eguzki goiztarak gari-itxaso orlegia argitzen du Gopegi'ren azalean. Gazi-xamara, garaia duta, kulunka bigunean... Gari artean amapola gorriak...

An, muñotxo batean, orlegiaren atzetik... Akosta. Gopegi'tik ordu-lauerden batera.

—I, lagundu akiak Akosta'ra, bertan meza tman bearean nauk eta.

—Bai, ta pozik—erantzun nion nere apaiz lagunari.

Ipar aize meeak astintzen zuan itxaso orlegia. Bide-txigoretik ba goaz Akosta'ra.

Eliz-ondoan giñala... nere ustegabeko poza!

"Egun on Jainkoak dizuela", beste aldeko bide-txigoretik zetoren gizon zaartxo batek.

Ni bai aritu! Egon leikean emen euskeraz egingo lukenik?

⁂

Bai, ba dira Akosta'n euskeraz jator asko egiten dutenak... Zeñek esan, Gopegi ikusita, ain gertu euskaldunak bila zeizkenik?

—Aizu, gixon, zenbat zaudete euskeraz egiten dezutenok?

—Euskeraz itz-egiten degunok lauren bat gara.

—¿...?

—Aditu egiten dute nere semiak, baña ez itz-egin.

—¿...?

—Aunek (bere emaste xaaragatik) ez teutze erakutzi ta.

—¿Cómo quieres que les enseñe si yo no sé?—erantzun dio emastiak

—Ya has tenido tiempo de aprender y, además, tus padres lo sabían también.

—¿...?

—¿Euskeraz? Gizon diran guziak arituten dute, baña ez itzik egin. Gastiak ez aitu ta ez itzik-egin.

⁂

Zaar maitagari oiek iltzen diranean... agur euskera! Eurakin batera juango da iobira. Iobia ta iobi-gañeko untza iraungo dute euskaldun... Erak gordeko dute euskera'ren aizkeneko oiartzuna... Erak bakarik. Bilobak untzaren ondora otoitz egitera juango diranean, ez dute aitonaren izkuntza goxoa aoan erabiliko... Untzak, ordea, itz, itz-egiterik ba'lu, aitonak berak erakutzitako euskeraz egingo lioke...

LEIZADI

Euzkotar Umien Ald

Gauza txarrak eder iriztea

"Gaiztoa zera, eta ondo ez gauzak askotan esan oi

STEPHANE MALL

"Neguaren ikara".

Ezagutuko dituzute, euren umeak egin i dituzten okerkeri dan esan oi dituzten lotsagabekeri guztiak ontzat artzen dituzten guraso. Mueta onetako gurasoak ere asko baitira!

Neu neonek entzundakoa da orain esango detan gauza auxe.

Ama batek alaba bakara du, eta bera erena. Ez du jayotzatikoa arezkerokoa baizik, eta alegin asko egin dizkioten aren, guztiak alperizan dira eta bizi guztirako noski, akatz orekin gelditu da neskatxoa.

Ara ba, ume onen ama, egun batean bere amar urtedun alabatxoa kinduri eta etoria azaltzen eta goratzen ari zan bere lagun batzuen eta onela zion:

—Ezdakizute zer esan zigun atzo Kalaretxo gureak. Bidabe-Azpilrese'n eskontza dala ta izketan ari giñan eta ala dio Kalaretxo gureak: ni ezin eskonduko naiz ba.

—Zergaitik ba, ume?

—Erena naizelako eta senargairik bilatuko ez detalako. erenik iñ du nai ta.

—Ia, e?—esaten zuan ama zoro onek—. Amar urteko ume batek bai da gero e? Ia ikusi ezazute ba argia ta zolia ez ba'da gure Kal

Eta pozez beterik, entzun nai zioten guztiari bere alabatxo argiateera" au esaten zebilen ama buru gabea.

Ama onek ontzat artu zuan, eta ontzat artuta bezela kontatzen zua amar urtedun neskatxoaren buru argitasun aundiaren agiri ori.

Baldin biok bakarik egon ba'giñan, esango nion nik ama ori "erteen ez dala iñondik ere umearen buru argitasunaren agiria beste gauza bazik. Ez al dakit ba nik, eta ondo gañera ume oren buru argien beri? dakit ba nik ikastolan eta dotriñan bederatzi eta zortzi urtedun umeentik dagoala gai guztietan?

Baña bere amak, ara umearen ausardikeri eta lotsagabekeri ori gau eta aunditzat nola artzen duan.

Gure euzkel-erietan len beintzat, ez amar urtedun umeak eta ez ar urtedun neskatxak ere ez zuten orelako gauzarik esan oi. Eta gutxiago dik beren amak ontzat artu eta goratu.

Nere umearoan, belarimotzen umeak eta batez ere belarimotz andrekiten umeari onelako itxusikeriak esaten.

Bai zan gure kalean Malpelo esaten zioten karabiñeru bat. Cordoberak esan oi zuanez. Aren emazteak itzetik ortzera zekian bere umeaten (erderaz, jakiña): "Roberto, ara emen zuretzat andregai polita" edo minada, ara or zuretzat senargi edera" edo ta "Auxe bai mutil edera! urtedun umetxo bati); au, gure Araceli'rentzat da senargai egokia."

Belarimotzkume ayek ere—gure aldian argiak eta auferatuak izan ni eta sagar gori edera ta ogi puska aundia eskuetan giñuzela etxetik ertedurako, aldamenera etori ta erderaz: "Nere senargaya izan nai al dezu?" teko ausardia zuten.

Guk beriz, orelako itz bat entzun orduko aidian iges egiten genduan ruetatik ere, bilduf izuak eman oi dituan egorik ariñenakin. Gañera amak beti esaten zigun ume ayek esaten zituzten gauzak oben edo ikaragarriak zirala, itz ayek entzun ezkero inpernura zuzen-zuzen juan ñala, ume ayek "mekadarak" zirala eta ondoan ere ez egoteko.

Baña orain nonbait euzkeldunak ere mekaotaren antzeko auferak eginda gaude, eta augaitik euzkeldun guraso batzuek batere lotsa gabe erako aziera ematen asi dira euren umetxoai.

Irakurri EUZKADI